


www.noaia.com

# Nu!



Perretxiku garaia iritsi da



Sagarrondotik  
kupelara bidean



sagardogintzarako tresneria



nafarroa oinez  
aldeko produktuak

esparrago puntak  
pikilo piperrak  
orburuak  
menestra

**Alkartasuna**

nekazal kooperatiba elkarteak

[alkartasuna@usurbil.com](mailto:alkartasuna@usurbil.com)

Ugarte industrialdea 12 · 943 361 114 · 20170 USURBIL Gipuzkoa

## Txirrikikutik !

**K**aparotz eta Atxegazar artean zegoen Alperro baserria aspaldi galdu zen. Argazkia atera zenean dagoeneko bertan ez zen inor bizi baina oraindik bertako ormak zutik jarraitzen zuten. NOAUA! Kultur Elkarteak argitaratu zuen baserri buruzko liburuan irakurri dudanez XVII. mendeko baserri hau planta handikoa zen; aurrealdeak harlandu, harri, mortairu, adreilu eta zura zituen eta barrutik zurezko egitura ona omen zuen.

Urte mordoan Galarraga familia bizi izan zen bertan. Bertako Martin Galarraga, baserria salgai jarri zutela jakin zuenean, 55.000 pezetetan erosten saiatu zen, baina azkenean ezin izan zuen erosi eta Azkoitiko Carasusaneke bereganatu zuen. Denbora batez Galarragatarrak bertan geratu ziren behiekin baina azkenean utzi egin behar izan zuten. Baserria 1980 aldera bota zuten eta ondoren gaur egun dauden fabrikak eraiki ziren.

Zalao Arnaiz Ibaguren



Argazkilaria: Josean Labaien, 1980, Alperro baserria

NOAUA! Kultur Elkarteak

## N u !

**Argitaratzailea:** NOAUA! Kultur Elkarteak  
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)  
Tlf.: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com  
www.noaua.com

**Koordinatzailea:** Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

**Publizitatea:** Maider Alustiza, publizitatea@noaua.com

**Kolaboratzaileak:** Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zalao Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

**Idazkaria:** Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

**Bazkideztza:** Aitziber Aranberri.

**Erredakzio Kontseilua:** Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Maider Alustiza, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

**Informatika:** Topaguneko informatika zerbitzua.

**Banaketa:** Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

**Elektrikaria:** Iñaki Salsamendi.

**Tirada:** 2.600 ale

**Lege-Gordailua:** SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

**Inprimategia:** Antza.

NOAUA! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**NOAUA! Kultur Elkarteke jendaurreko ordutegia:**  
10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

AZALA

Ez da sagar urte ona izan, baina bada zer bildu.

## Aurkibidea

ZUTABEAN, JAKOBA ERREKONDO \_\_\_\_\_ 4. ORR.

AGINAGAKO FESTAK, AZKEN TXANPAN \_\_\_\_\_ 5. ORR.

LANKIDETZA HITZARMENA \_\_\_\_\_ 10. ORR.

Usurbilgo Lanbide Eskolak eta Udalak hiru urteko lankidetzaren hitzarmena sinatu berri dute.



A-8 AUTOBIDEA EGOKITZEN HASI DIRA \_\_\_\_\_ 11. ORR.

PERRETXIKU UGARI BILDU DA \_\_\_\_\_ 12. ORR.

LEHENDAKARIA, ELHUYARREN BISITAN \_\_\_\_\_ 13. ORR.

SAGARDOA EGITEN HASTEKO GARAIA DA \_\_\_\_\_ 14. ORR.

BAZKIDETZA KANPAINA BERRIA \_\_\_\_\_ 16. ORR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

## Zutabea !



JAKOBA ERREKONDO

## Esperantza

Ale pare bat bada, Zubietako kronista lanetan aritzen den Prostuetxeko Xabierrek Oiartzungo herria zoriondu zuela. Arrazoia, berak dioen eran "pozgarria": usadio galdua berreskuratuz errebote plaza berregin eta partidak jokatzen hasi dira.

Historia oparoa duen jokoa da errebotea. Pilota-jokoen arbasoetako bat, garai batean belazeetan jokatzen zela dirudi. Gerora garrantziko joko, dema eta apustuekin gertatu zen bezala herrietako etxe artean eraiki ziren joko-guneak. Aldaketa honekin erreboteak erretoan aldenik aldeko pareta izango du. Generalean zorua belarra izango da; gerora erretoaren aldea, sakerako botiloaren buelta... pixkanaka harlosaz osatuko dira eta belarraren ordezkondarra, zepa-hautsa etab jarriko da. Hala ere, geuretik urrutira gabe bada oraindik kasakoan belarrezko errebote plaza duen herririk. Herri askotan pareta bakar horrekin diraute errebote plazek, beste askotan sakearen aldetik ere beste pareta bat zen tokian eraiki ziren edo ondoren erantsi. Pareta hauetako bati ezker-pareta erantsi eta horra egun ezagutzen ditugun pilotalekuak.

Beterrin plaza bakarrean hiru izan ohi dira batera: errebote plaza, dema plaza eta bolatokia. Gune hau da herri-kaskoaren erdigunea. Herriko bizitzaren bihotza da: azokak, batzarak, demak eta apustuak, jaiak, ospakizunak, kontzertuak, aparteko jokoak... bertan burutzen dira.

Usurbilen ere hortxe da plaza hirukoitza hau, baina erabat desitxuratua. Pilotalekuaren txapela jarri zenean galdu zen mendez mende jasoa genuen ondare hau. Pilotalekuari lehe-

nengo txapela 1.960ko hamarkadan, gu ume koskorrak gine-la jarri zitzaion. Ordura arte ezker-paretaren kontra, atzekaldean Etxebeste kalean Kontsejuxiki aldera, bolatokia zen. Makina bat bider kaniketara-eta jokatu genuen hango hondarretan. Geure jolas-gune maiteenetakoa uralitazko txapela hari eusten zioten burnizko zutabe itsusi haien oinak jartzeko txikitu zuten. Bolatokiaren harlosa bikaina, brilak jartzeko erabiltzen zena, hor bota zen eskola atzeko belardian, egun udaletxe atzeko belarditxo horretan. Oraindik hor dela apustu egingo nuke, lurperatua, begi-bistatik kendua...

Ez da urte asko pilotalekuari txapela berri zitzaiola, 1.997an. Aurreko txapelarekin bolatokia txikitu bazen, oraingoarekin errebote plaza deuseztatu zen. Pilotalekuaren atzeko beirazko horma erdiak ez du plazaren jatorrizko jokoa burutzea ametitzen. Euriak lurrik ez bustitzeko egin omen zen horrela... toldo zintzilikario eta guzti ere nahikoa lan izaten da zoruari lehor eusten. Kaniketan aritzea ederra bazen, pentsa zer zen gure plazan errebotea... hori ere ezagutu genuen. Hor daude, ikusi nahi duenarentzat, errebote plazaren bi aldeetako zintzarriak, bi petrilen aldamentan, Elizako horman plaza mugatzen duten arrastoak, botiloaren kokagunearen gurutzak... Bizia zen ondarea, errebote jokoa, fosilizatu dugua.

Ulergarriak Zubietatik kronistak luzatzen zituen: "zorionak Oiartzun" eta "...ondo legoke Usurbilek ere erreboteko plaza berreskuratzea". Errebotean kontalariak esan ohi duen eran "esperantza"...

Ainhua Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai

## Ika-mika !

## Usurbilgo udal agintariek ez dute langileekin hitz egin nahi

2005eko udazkenara iritsi garenean, Usurbilgo udal langileon soldatak ez dute inolako igoerarik izan aurreko urtea amaitu zenetik. Behin eta berriz eskatu dugu, ahoz eta idatziz, gutxienez KPIaren (IPC) neurrian (%3,2) igotzeko, gure familien erosteko ahalmena manten dadin. Udal agintariek, dekretuz %2ko igoera planteatu ziguten eta ados ez ginela ikustean, mahai gainean utzi zuten gaia, inolako igoerarik gabe. Geroztik ez dute gurekin hitz egin nahi.

Itxura denez, langileon erosteko ahal-

mena mantentzeko dirurik ez dago. Zinegotzien soldatak ordaintzeko bai. Marka guztiak hautsi dituzte. Gaur egun, 5 zinegotziek kobratzen dute Udaletxetik soldata zatiren bat (EAKoak 3 eta PNVkoak 2). Beste zinegotzi guztiak 50na euro kobratzen dituzte Batzorde bilera bakoitzera etortzeagatik. Batzorde batzuk 5 minutu baino ez dute irauten. Aurreko korporazioko kideek 31,85 euro kobratzen zituzten. Plenoetara etortzeagatik beste 80 euro kobratzen dituzte gaur. Aurrekoek 31,85 kobratzen zituzten. Beraien ordain sariak bikoiztu dituz-

te, langileei KPIa ukatu.

Garbi dago gauza batzuetarako dirua badagoela. Langileon soldatak eguneratzeke ez nonbait. Bazkari galantak egiteko ere iristen omen zaie. Galdetu bestela ekainaren 28an Atxega Jauregian, txanpain eta guzti, egin zuten bazkaria zenbat kosta zitzaigun herritarroi.

Inposaketarik ez. Gauzak hitz egin, negoziatu eta adostu egin behar dira.

Aitor Eleta, Begoña Rodriguez eta Xabier Tello, Usurbilgo Udaleko langile ordezkariak.

# San Praixku Jaiak, azken txanpan

**O**ilasko biltzaileen doinu eta dantza saioekin hasi ziren festak. Urriaren lehenean izan zen hori. Guztira, 25 bat lagun ibili ziren baserri baserri. Biharamuneko herri kirol saioa ere ikusgarria izan zen. Herritarrak jo eta su aritu ziren eta ikuskizun polita eskaini zuten. Jai-giroak jarraipena izango du urriaren 7ko aste-bukaeran.

Jaiak hasi dira Aginagan. Oraindik bada zer ospatzerik. Umeen Eguna, esate baterako. Urriaren 7an, arratsaldeko 17:30ean, Pirritx eta Porrotx pailazoak hurbilduko dira Aginagako pilotalekura. Urriaren 8an, Preso eta Errefuxiatuen Egunean, herri afaria egingo da.

Urriaren 9an, Irazu, Peñagarikano eta Egaña bertsolariek arratsaldez eskainiko duten saioarekin amaituko dira festak.



UMORE ONEAN ARITU ZIREN OILASKO BILTZAILEAK.

## Arantxa Mendizabalen margoak, erakusketan ikusgai

**U**rtero, Aginagan antolatzen den Mihixe pintura taldearen erakusketarekin bat eginez, talde honetako partaide baten aipamen berezia egiten da. Aurtengoan, orain dela gutxi gure artetik joan den Arantxa Mendizabal izan da.

Orain dela 20 bat urte hasi zen Arantxa, Udarregi zaharreko beheko geletan pinturako klaseetan, Karlos

Zabala maixu zuelarik beste hainbat ikaslerekin batera. Eta han aritu izan zen urte askotan.

Karlosek klaseak emateari utzi zionean, Amaia Kasasola bere emaztearekin jarraitu zuen, Aginagan antolatu zituen klaseetan; eta bere azken eguna arte bizi izan zuen bere barnean, pintura eta marrazkiarekiko grina, bere espresio era.



## Azken egunetako egitaraua

### URRIAK 7 OSTIRALA

#### Umeen Eguna

**09:30** Umeen jolasak, gogotsu etorri!  
**14:00** Amatxoek prestatutako bazkari goxo-goxoa.

**17:30** Pirritx eta Porrotx pailazoak. Ondoren txokolate-jana eta buruhandi bizkor-bizkorak eta gaizto-gaiztoak, korri egiteko prestatu!

**23:30** Laiotz taldearekin dantzaldi bikaina.

### URRIAK 8 LARUNBATA

#### Preso Errefuxiatuen Eguna

**16:00** XXV. Mus Txapelketa herrikoia. Ondoren Herri poteoa, giroa berotzen hasteko.

**21:00** Herri afaria (Txartelak betiko lekuetan salgai). Gauerdian, Herriko presoiei omenaldia.

Ondoren, Egan taldearekin erromeriya.

### URRIAK 9 IGANDEA

**12:00** Usurbilgo dantzari txikiak.

**17:00** Herri kirolak. Aizkolariak: Peñagarikano, Olasagasti, Larretxea, Etxebeste. Harrijasotzaileak: Goenatxo, Ostolaza. Ondoren, bertsolariak: Irazu, Peñagarikano, Egaña. Gai-jar-tzailea: "Tola".

#### OHARRA:

- Jai Batzordea ez da arduratzen egun hauetan gerta daitezkeen istripuetaz.



IMANOL  
GOENAGA

Txokoalde

## Giro politean

**K**aixo auzotarrok, hementxe gara berriz ere gure txoko honetako kontuetaz hitz egiteko asmoz.

Irailaren 17an gure auzoko Erroizpe elkartearen 50.urteurrena ospatu zen. Txekor ederra jan genuen burduntzi eran prestatuta. Goizeko 9:00ak aldera jarri zuten erditik kanalean zabaldua eta egur ikatzarekin brasa fin bat egin eta buelta eta buelta eduki zuten gaueko 21:00ak arte. Eguraldia ez zela fidagarria eta fron-



toian egin zen, nahiz eta hasera batean Berriolako aparkalekuan egitekoak baziren ere.

Azkenean frontoia gainezka izan zen eta errepa-so ederra eman genion txekorrari. Aukera aprobetxatuz, soziedadeko partaide zaharrenei omenaldia egin zitzaion eta nola ez guztion artean duela 50 urtetik honako istorio guztiei errepassoa eman genien. Trikitilari eta bertsolariak ere euren partea jarri zuten eta eguraldi txarra izanagatik ere, giro polita izan genuen gau guztian.

Bestalde aipatu urrian ere Akerra gaztetxean kontzertu bat emateko prestatzen ari garela, beraz badakizue, adi egon kartelei eta une on bat pasa nahi baduzue pasa kontzertutik!



ANA  
URDANGARIN

Kaleberri

## Correos Correos!

**K**aixo! Opor zoragarrien ondoren berriz ere bueltan gara. Marka izango da gero, baina idazten hasi eta zer izango eta orain ere protesta, beti badugu zeozer! Ez, serio hitz egiten jarrita oso arazo larria da Usurbilen azkenaldian gertatzen ari dena Correos zerbitzuarekin, ez dago eskubiderik herri bati horrelako zerbitzu pattala ematea. Ez da zaila, hilabetean behin aldatzen baitituzte postariak.

Azkenean beti bezala herria kaltetua, ba zerbait egin beharko dugu; Udaletxeak ere egin du erreklamazioa ia kasu egiten duten. Lehenengo gauza, Lasarte-Orian zentralizatu beharrean korreo guztia hona bueltatu beharko zuten eta kontratu hobeak egin jendea denbora gehiagoan gelditzeko; eta herrikoak badira hobe.

Postari gehienak kanpokoak dira eta ez dute herria ezagutzen, Usurbil ez da herri handia baino kilometroak baditu, aurrena herria eza-

gutzeko ikastaro batzuk eman beharko lituzkete eta gero lanean hasi.

Herri guztian dago arazoa entzuten ari naizenez, ez da karta sinple bat ere iristen etxe batera behar den bezala, ez baldin bada ondoko baten karta, beste ezezagun batena iristen zaizu! Hau kuxidadia!

Hau konpontzeko era bakarra erreklamazioz jostea da Donostiako zentrala bestela kasorik ez digute egingo.

Idatzi honekin denak animatzen zaituztet erreklamazioak idatziz egitea, badakizue gauzak errazteko burokrasia! ja ja ja ja... Hitzak haizeak eramaten ditu-eta. Correos-en banatzen dituzte erreklamatzeko orriak eskatu eta idatzi. Hau da indarra egiteko era bakarra, ez dago besterik.

Beno, jende, hurrengora arte ondo ibili Aginagako jaietan!

## Postariak bi aldiz jotzen omen du atea...

**B**aina non? Ze azkenaldi honetan ez dugu berri askorik jasotzen etxeetan, ez behintzat eskutitz bitartez. Gainontzeko auzoetan postarien zerbitzua nola dabil? (Nik Asteasuain lantegialdean egiten dut lan eta han arazo ugari izan ditugu zerbitzu honekin beraz ados jarri ginen enpresa batzuk eta Madrileko Correosera deitzen jardun dugu presioa eginez, konponbide bat bilatu dezaten) Gurean oso eskax!! Astean behin edo bitan etortzen dira, etortzen dira esaten dut ze egun bakoitzean langile desberdin bat ikusten dugu ate aurrean, eta ez da izango gutxi-tan etortzen direla korrespondentzi gutxi dagoe-

lako, ez nere etxean! Propaganda ere bada, egunero izaten da zer jaso, ba hauek karta gutxi ekartzen dituzte eta horietatik bat baino gehiago aldamenekoarena edo auzotar batena. Zerbitzu publiko bat izanik, eta denen poltsikotik ateratzen den diruarekin ordaintzen denez, exijitu dezagun lehen baitlehen arazo honetarako konponbide bat, inork ez duelako gure posta personalaren berri eduki behar eta eskutitz garrantzitsu baten zain egon gintezkeelako. Ez badira iristen toki guztietara langile faltarengatik, jar ditzatela gehiago artaka langabezia jeitsiko dute bide batez. Ondo izan...

Kalezar



AINARA  
URIBE

## Mahaspildegia elkartera bidean

**D**uela aste batzuk Udarregi ikastola eta Agerialde ikastetxea izan zenaren inguruetan mugimendu handia sumatzen hasi ginen auzotarrok. Normalean baino haur gehiago entzuten ziren goiz partean behintzat. Egutegiari begira jarri eta iraila amaitzeaz zegoela konturatu ostean, kurtso berria hasi zela begi bistakoa zen. Aste honetatik aurrera gainera Udarregi ikastolako neska-mutilak arratsaldez klaseak ematen hasiak dira berriro ere. Gabonak iritsi bitartean beraz, ez dute deskantsurik izango.

Bestalde, lehenago aipatua badut ere honako gai hau, berriz ere zuei komentatzea eskatu didate zenbait auzotarrek. Izan ere, Mahaspildegia elkartera jaisteko ditugun eskailek zikinak eta batez ere goroldioz beteak zudelako jakinarazi nuen eta bertatik jaistea arrisku-tua egiten zela oso irristakor bihurtzen baitira. Horretaz gain, eusleku edo barandailarik ez dagoela aipatu nahi nuke oraingoan.

Badirudi begiak itxi eta irekitzeko behar



dugun denboran udatik udazkenera pasa garela. Konturatzerako euria, haizea eta hotza gure bizkarrean itsatsita bagenitu bezala gainetik kendu ezinik edukiko ditugula hemendik aurrera.

Atxegalde



AINARA  
ARNAIZ

ALEX  
TELLO

Santuenea

## Ezustekez ezusteko

Bidaia luzearen bueltan, azken etaparen helmuga Usurbil zen. Etxera iristeko ahaleginari eutsiz, atsedenerako behar astunaz askatzeko premiak eta, nolabait, gosea eta dastamena ase nahiak bultzatzen ninduten.

Errepideak eta heuren inguruak gero eta ezagunagoak atzemateak, hurbiltzearen adierazpide suertatzen zitzaizkidan. Halako batean, arrotzei edota despiatuei zuzenduriko seinalean: Santuenea.

Harrizarren lantegia zeharkatzen duen zuhaitzen errepidean azkar-zakar-azkar\* abiatu nintzen. Kolore ederrekoak diren marmol edo granitozko harri xafila bitxiak begiztatu eta auzoaren atarian, zubi historikora heltzerakoan...hara semaforoa itzalita!

Ibaiaren zubiaren beste aldetik etor zitekeenari ikusi ezinik (bidea estutzen baita autoentzako norantza bakarra utziaz), poliki, erne eta kontu handiz zubiaren malda igo eta bidea libre ikusterakoan, lasaitasunez auzoan barna jo nuen.

Halako batean! Autoak kale erdian 'kale' egin zuen. Motorra pizteko alferrikako ahaleginen ostean, oso eroso telefono mugikorra hartu nuen, baina dei egiteko ez zuen funtzionatzen, bakarrik ordua seina-

latzen zidan, ez beste.

Auzoan erreparatu eta erabat hutsik zegoela sumatu nuen. Ordu hartarako arraroa, bertan beti izaten baita agurra merezi duenik (betidanik eta betirako han egoten diren auzotarrak). Edonon bizidun oro desagerturik omen eta isiltasuna nagusi. Bidaia-aren azken ordua inorrek gurutatu ezean igaro nuen eta hortaz jabetu nintzen, orduan ere.

Santuenean gertatzen ari zena bazter guztietara hedaturiko bitxikeria ote?

Egoera misteriozuan eta isolaturik zer egin?

...

Auzoa sorgindurik zegoelakoan? Non zeuden bizilagun guztiak? Politagoa den leku batean? Ala, bertan aurkitzen ziren eta nik ezin nituen ez ikusi, ezta entzun ere?

...

Aspaldian ez bezala, ibaiaren hotsek ene atentzioa bereganatu zuten. Doinu haiek erakarrita hOria ibaira oinez zuzendu nintzen...

\*Errepide luze horretan autoz azkarregi joan gaitzke, konponbiderik bada zebrabidean arriskua murrizteko!

NEREA  
AIZPURUA

Urdaiaga

## Udazkena

Iada uda amaitu eta udazkena etorri zaigu isilik... Atzean geratu dira beraz, herrietako festak, oporrak, familia edo lagunekin egindako egun-pasak, hondartzara egindako joan etorriak... Baina, udak bere xarma duen bezalatsu, udazkenak ere berea baduela onartu beharrean aurkitzen naiz.

Udazkena uzta jasotzeko garaia izaten da: perretxikuak eta onddoak, intxaurrak, babarrunak, sagarrak... Batzuk berez ateratzen direnak dira eta beste batzuk guk aldatu edo ereindakoak. Izan ere, hainbat eta hainbat dira poltsa edo "xextua" hartu eta Andatzara mendi buelta egiten dutenak.

Hau guztiaz gain, udazkeneko koloreak ere benetan ederrak direla aipatu beharrean aurkitzen naiz. Hau egiaztatzeko, Andatza aldera begiratu besterik ez dago, izan ere, udazkenean kolo-



rez janzen dira bazterrak. Zuhaitzetako hostoek, kolore eder eta ezberdina hartzen dute eta ondo behatuz gero, milaka kolore ezberdin aurki daitzke.

Beraz, udazkenaz gozatzen hasi beharko dugu neguko egun motz eta hotzak etorri baino lehen!!



## Gora San Praixku jaiak!

**K**ronikatxo hau idazten hasterakoan, dagoenerako hiru egun joan zaizkigu eta hemen egun horietan gertatuen berri emango dizuet. Ostiral arratsaldean pelotako finalak jokatu ziren frontoian. Etxeberri-zaharreko Joxe Antonio eta bere seme Xabierrek –orain Mitxelkonean bizi dira- irabazi zuten.

Larunbata zen Oilasko-Biltzaileen eguna. Etxez etxe fin asko ibili ziren dantza eginez. Arratsaldeko hirurak aldean bazkaldu eta ondoren futbol partida gogorra jokatu zuten, euriaren beldurrik gabe. Badutela indarra Sekañako ardoak eta patxaranak!

Gauean Abiba DJk jarri zuen dantzarako salta, bere Gogo famatuekin. Aitortu behar dizuet joan den urtean baino giro hobea jarri zutela. Poza ematen zuen gure frontoian hainbeste jende dantzari ikusteak.

Igandean gure ehiztari eta eskopeteroen txanda izan zen, tiro-plato txapelketarekin. Nahikoa kar-

tutxo erreak izan behar dute. Arratsaldean herri kirol eta jokoak izan genituen. Lau taldetan banatuta aritu ziren jolasean zahar eta gazte. Giro polita sortu zuten denen artean; eta Albertok animatu zuen festa aurkezpen lanak eginez. Aktore lanetan ere aritu berria da Usurbilen, eta San Praixku hauetan oholtaza gainean erakutsi du abilitadea.

Festa giroaren erdian, ez dauzkagu ahaztuta herrikit falta ditugunak: Xabier Aranburu, Patxi Segurola eta Jokin Errasti. Horiek eta espetxeetan diren guztiak datorren urtean gurekin izatea nahiko genuke.

Gainera, festa usainean ibili arren, egunotako hiru heriotzak goibeldu digute Aginaga. Lastaolako Lontxo joan zen jaien aurretik, herriko apaizaren anaia Joxe Mari Aranalde hil zela jakin genuen gero, eta larunbatean joan zitzaigun Zumeta-eneko semea Iñaki. Hemendik gure doluminak senideei.

Aginaga



**LONTXO  
ZUBIRIA**

## Galdu eta irabazi

**I**kasturte berriarekin batean hasi dira zestoko pilota partidak. Umeen lehiaketez ari naiz. Zubietan bi ekipo sortu dira eta oraingoz Donapaleukoena eta Hazparnekoena kontra aritu dira. Eta galdu, eta galdu besterik ez dute egin: bi ekipo, bina partidu, beraz lau aldiz galdu dugu. Badakigu ona dela galtzen ikastea, baina...

Nire kolkorako aritu naiz ez ote ditugun helduok okerrago hartu emaitza hauek umeek baino. Partida hauetan aritu den bati galdetu diot bera nolako jokalaria den. Bi aldiz pentsatu gabe esan dit: ona! Eta kontrarioei buruz galdetu diodanean: Hobeak! Ez dakit horrela pilotan aurrera egiteko biderik izango duen ala ez...

Txarreanean beti geldituko zaigu Errealean

sartzeko aukera –horiek ere Zubietan daude–, eta galtzen majo ohituak ditugu dagoeneko...

Galtzen ikasi behar horren hariari tiraka gogoan dut Joxe Azurmendi filosofoari irratian entzun izana Euskal Herriaren Historia maitatzea galtzaileen Historia maitatzea zela... Eta ia konturatu gabe, Zubietaren etorkizuna dela eta jokatzeko ari diren zenbait partida datozkit gogora: kartzela, kuartelak, errauskailuak eta etxe uholdea... Eta zer-irabazi gutxi eta zer-galdu asko ditu Zubietak partida horietan.

Ez da, ordea, Joxe Azurmendirena egin litekeen hausnarketa bakarra. Izan ere, bada aipamen esanguratsu bat italiarrei buruzkoa: “Italiarrak bataila guztiak galtzen zituzten eta gerrak irabazi”. Bejondeiela.

Zubietan



**PELLO  
ARANBURU**



## A-8 autobidea zabaltzeko proiektuak kezka eragin du Aintziazar baserrian

**T**xakurtegi ondoan dago Aintziazar baserria (Aintzi bezala ere, ezaguna). Aginagan, Mendizorrotz magalean. Orain gertu badute, laster, etxe atariraino iritsiko zaie autobidea. A-8 autobidea hiru karriletara zabaltzearen ondorioz, ordeka den lur-zati bakarra galtzeko zorian dira.

A-8 autobidea hiru bideetara zabaltzeko, inausketa (*desmonte*) ugari egin beharko dituzte Orio eta Aritzeta arteko zatian. Diputazioko teknikariek, Aintziazar baserri ondoan dagoen ibarrean pilatu nahi dituzte sobran izango diren lur horiek denak. Betelan horren ondorioz, ordeka den lur-zati gehiena galduko dute Aintziazarrekoek. Karmele Bengoetxeak eta Isidro Arrutik adierazi digutenez, 1.400 metro koadro galduko dituzte desjabetze bidez.

Isidro Arrutik dioenez, “10.000 kamioi sartu nahi dituzte”. Antza denez, inguruan diren beste ibar batzuk babestuak daude eta Aintziazarrekoan pilatu nahi dituzte inausketako lur denak.

Zurrunmurrua aspaldi iritsi zitzairen. Autobidea zabalduko zutela baina pantaila metalikoen bidez babestua izango zela entzun zuten. Betelanaren berri ez zuten, ordeka. Horren erruz, ordekatua den lur dena galtzeko zorian dira.

Dena den, betelan horrekin ez dutela autobidea ikusiko eta burrunba gutxiago pairatuko dutela agindu diete Diputazioko teknikariek.

Hala ere, betelan hori beste era batean egitea posible dela uste dute Aintziazarrekoek. Hori lortzen saiatuko dira. Alegazioa aurkeztu dute eta erantzunaren zain dira orain.



A-8A ZABALTZEKO EGINGO DEN INAUSKETAREN LURRA (DESMONTEAREN LURRA) IBARBIDE HONETAN PILATU NAHI DUTE. BETELAN HORI BASERRIAREN ATARIRAINO IRITSIKO DA, GEZIAK ZEHAZTEN DUEN TOKIRAINO.

## Datorren urtean hasiko dira Orio eta Aritzeta arteko zatia zabaltzen

**U**ztailetik, Intxaurren eta Pasaia arteko hiru bideak irekita daude, bi norabideetan. Orain Oiartzun eta Irungo Bentak arteko zatian ari dira lanean eta, atzerapenik ez bada, 2005eko abendurako lanak amaituta izango dira.

Zati horretako lanak amaituta, Orio eta Aritzeta arteko zatian ekingo diote. Orio eta Aritzeta arteko zatia hiru bideetara

zabaltzeko lanak abenduan hasi eta 2007an amaituko dira. Hori bukatu ondoren, Orio eta Zarautz arteko zatian ekingo zaio. Beraz, 2008an, Irundik Zarautz arteko autobideak bi norabideetan hiru bide izango ditu.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren esanetan, 2019rako hiru bidekoa izango da A-8 autobidea.

### JOXE MARI ARANALDE (gorpu)



Gizon,  
gizon buru jantzi  
gerri bete gizon;  
oihaneko sustrai  
zuhaitz sendo tanta;  
begitarte itzal  
itzal haundiko gizon.

Gizon,  
gogo altxagarri  
bihotz-horma zabal  
eskuzabal leial;  
gatzelu altu  
gatzelu barru  
barru-barruko gizon.

Gizon,  
apaiz urrunbegi  
LARTE gailur antzo  
zabal ikuskari:  
olerkari,  
euskaltzain urgazle,  
bertsolari...  
Ernalbegi gizon.

Gizon,  
loak zaitu hartu,  
baina ez zara gau:  
zure irudiak  
dir-dir dirau:  
goi zilar,  
su-pindar  
gau-izar.

“ODOLAREN MINTZOA”

oleska ari zuri,  
estu besarka zaitzan  
bertso kantari.

Agur ohore-gizon!  
Agur Joxe Mari!  
Bekizu EGUN HANDI.

Jabier Pikabea Aizpurua

## Mundu bat perretxiku bila

**P**erretxikuak biltzeko zaletasun handia dago Usurbilen. Euskal Herriko mendi eta txoko ugari, gainera, perretxikueta-rako oso egokiak dira. Horregatik, asko dira gibelurdin, ziza eta onddo bila abiatzen direnak. Perretxikuak biltzeko garaia hasi da, eta nola hasi gainera. Kiloka ekarri dituztenak badira. Juan Kruz Unanue eta bere etxeokak, esate baterako.

Mendian maiz ibiltzen direnek bada-kite perretxiku garaia dela. Jende ugari dabil, ziza, onddo eta perretxiku bila. Orain arte, uzta oparoa izan da gure mendi eta basoetan. Asko izan dira etxerako bueltan eskukada-txo bat bederen ekarri dutenak.



ORAIN ARTE, ZIZA GUTXI BAINA ONDDO ETA GIBELURDIN ASKO BILDU DA.

## 45 kilo baino gehiago jaso ditu Juan Kruz Unanuek

**I**railaren 27an, Juan Kruz Unanue eta bere alaba Aitziber xextoa bete perretxiku etxeratu ziren. Guztira, lau kilo eta erdi inguru bildu zituzten. Nafarroa aldetik ekarri zituzten. Nondik? Ezin esan. Ondo gordetako sekretuen artean, perretxi-koekin lotutakoak izaten dira.

Nafarroan asko ibiltzen da Juan Kruz Unanue. Garai batean, polemika ugari eman zen gipuzkoar eta nafarren artean. Aspaldi, arazorik izan zuen Juan Kruzek: *"Bai, duela 23 urte inguru. Kotxea markatu zidaten"*, adierazi digu.

Denbora batean, ez zen Nafarroako txoko horretara itzuli.

### JUAN KRUZ UNANUE

"Hemen ere geratu gabe dago, baina ez Nafarroan bezala"

Baina ordutik ez du arazorik izan. Aldiz, uzta ederra bildu izan du. Lehengo ilargi berrian hasi (irailak 3) eta handik bost egunera abiatu zen

perretxiku bila. Dagoeneko, *"sei-zazpi bidaia egin ditut. Batzuetan, bi xexto oso bildu izan ditugu"*, aitortu digu Atxegalden bizi den lagun honek.

Gehien bat, onddoak eta gibelurdinak bildu dituzte, baita ziza eta errotari batzuk ere.

Baina, Nafarroan bezala, gure inguruan ere asko jaso da. Juan Kruzen esanetan, *"hemen inguruan ere, geratu gabe dago. Ez da han bezala, baina lau kilo ere bildu daitezke"*. Zorte pittin batekin eta asko ibilita.

### Lagunen artean partitzen ditu

Dagoeneko, 45 bat kilo etxeratu dituzte Unanuetarrek. Eta perretxiku garaia hasi besterik ez da egin. Lehen, saldu egin zituela esan digu Juan Kruzek. Gaur egun, *"ez dut saltzen baina lagunen artean partitzen ditut"*.

Esan dugu. Asko bildu da eta horrek jende asko eramán du mendira. Egun hauetan jende ugari topatu duela esan digu perretxikuzale honek: *"kolpea ematen duen garaian ateratzen da jendea. Harritzeko modukoa. Erromerina joango balitz bezala, igoal-igoal. Kotxea aparkatzeko tokirik gabe, dena bete-bete eginda"*.



IRAILAREN 27AN BILDUTAKO UZTA EZ ZEN MAKALA IZAN.

### Osabarekin ikasitakoa

Juan Kruz Unanuek osabatik jaso zuen perretxikuak biltzeko grina. Liburuak ere lagungarri izan zaizkio. Etxekoekin ez ezik, lagunekin ere ibiltzen da mendian.

## Elhuyar Fundazioa bisitatu zuen Ibarretxe lehendakariak

**I**railaren 22an Usurbilen izan zen Juan Jose Ibarretxe lehendakaria. Elhuyar Fundazioaren egoitza berria ezagutzera etorri zen, Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzaren bozeramailea eta Kultura sailburua eta Patxi Bazarrrika Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikako sailburuordearekin batera. Lehen lehenik, Elhuyarrek erosi eta guztiz eraberritu duen eraikina bisitatu zuten.

Bisitaren ondoren, Elhuyarrek sail-araduradunekin eta Elhuyar Aholkularitzako eta Eleka Ingeniaritza Linguistikoko zuzendariekin bilera egin zuten. Bilera horretan, Elhuyarren historiaren eta orain arte egingako lanaren berri eman zitzairen. Horrez gain, Elhuyarrek zientzia gizarteratzeko eta euskararen garapena indartzeko zer proiektu dituen ezagutzeko aukera izan zuten.



EGOITZA BERRIA BISITATU ONDOREN, ELHUYARREK DITUEN PROIEKTUAK EZAGUTZEKO AUKERA IZAN ZUEN IBARRETXE LEHENDAKARIAK.

## Egoitza berria, betiko xedeak

**E**lhuyar Fundazioko zuzendaria da Itziar Noguerras. Bi urte egin ditu karguan eta gustora dago Elhuyarrek epe honetan izan duen bilakaerarekin.

**NOAUA! Lehendakariaren bisita protokolo hutsa izan al zen?**

**Itziar Noguerras.** Maiatzean egin zen inaugurazio ekitaldirako gonbitea luzatu genion lehendakariari. Ezin zuela etorri esan zigun eta Eusko Jaurlaritzak, ordezkari gisa, lehendakari ordea bidali zuen. Hala ere, noizbait bisitan etorriko zela agindu zigun lehendakariak. Miren Azkarate Kultura sailburua ere, egoitza berria ezagutzeko gogoia zuen. Miren Azkaratek, bestela ere, gure hiztegi-gintzarekin izan du loturarik, akaso teknikoagoa.

Orain ondo zetorkiela, Zinemaldia ere tartean zela eta horrela etorri ziren bisitan. Espero dugu protokolo hutsa ez izatea. Garrantzitsua iruditzen zaigu gurea bezalako proiektuak ezagutzea eta konturatzeari duten garrantziaz eta sortzen duten aberastasunaz.

**N. Elhuyarrek erosi eta guztiz eraberritu duen eraikina ikustera etorri ziren. Aurreko egoitza ere, Usurbilen zegoen.**

**Zer du herri honek?**

**I. N.** Usurbildar jatorrak, batetik. Ez dut brometan esaten. Lankide usurbildarrek kopuruan ez dira asko izango baina betidanik izan dira, eta oso jatorrak. Hortik aparte, Elhuyar beti Donostian izan da baina egoitza txiki geratu zen eta Donostian ez zen tamainako tokirik aurkitzen. Usurbilgo Asteasuain industrialdera aldatu zen Elhuyar. Berehala konturatu ginen abantailak ere bazituela Usurbilen egoteak: arazorik gabe aparkatu, lasai ibili... Eta batez ere, ekonomiko-ki. Lanerako metro dexente eskuratu ahal izatea. Duela hiru urte, Asteasuaingo egoitza ere txiki geratu zen. Bi urte atzera eta aurrera ibili ondoren, aukera hau agertu zen (egungoa, Osinalde industrialdean dagoena).

**N. Elhuyar Fundazioko zuzendari nagusi izan zara azken bi urteotan. Nolakoak izan dira bi urte hauek?**

**I. N.** Intentsoak. Iruditzen zait denbora pila bat egin dudala ardura berri honetan.

Bi urteotan, bilakaera oso ona izan da. Gogorak dira halako ardurak, horrelako aldaketa momentuak. Ez da erraza. Talde-lanean dago sekretua. Oso ondo



BERE BULEGOAN JASO GINTUEN ITZIAR NOGUERASEK.

konpontzen gara bai zuzendaritzan bai orokorrean ere. Baina oso neketsua da. Gauza berri askorekin topo egiten duzu eta etengabe erabaki behar.

**N. Epe laburrera, zeintzuk dira Elhuyarren erronka nagusiak?**

